





# Memoria 2004 Txostena

AYUNTAMIENTO DE VILLAVA
ATARRABIAKO UDALA

SERVICIO DE CULTURA
KULTURA ZERBITZUA

## Presentación

Un año más os presentamos la memoria anual de las actividades desarrolladas por el Servicio de Cultura del Ayuntamiento de Villava.

Durante 2004 seguimos buscando el equilibrio entre el apoyo a las entidades artísticas y culturales de la localidad y la promoción de una oferta cultural de calidad, intentando al mismo tiempo llegar a todo tipo de públicos.

Continuamos con deficiencias, casi ya históricas, al no disponer del Centro Cultural que se merece nuestra villa, además de la limitación presupuestaria a la que se nos condena a los Ayuntamientos. Seguimos apostando por alcanzar el reto de que el 10% del presupuesto de gastos del Ayuntamiento se dedique a la actividad cultural, como recomienda la UE.

Os presentamos una síntesis de las muchas acciones que hemos realizado ordenadas en cinco áreas.

Del área de difusión cultural resaltar la gran calidad de los grandes espectáculos y el éxito de público en los conciertos de Carlos Chouen, Los Van Van, Sokiedad Alkoholika y Fangoria, lamentando la escasa acogida que mereció el I Festival del Tango.

En el área de creación cultural destaca la consolidación del certamen literario Pedro de Atarrabia, avalado por su prestigioso jurado. Tener en el mismo a Rosa Regàs (ahora Directora de la Biblioteca Nacional), Fernando Marías, José Mª Romera, Felipe Juaristi y Juan Gartzia le da una repercusión cultural y social que transciende nuestras fronteras.

Entre las novedades del área de promoción de la localidad destacamos la edición de 2.000 ejemplares del cuarto número de la colección de temas villaveses "Villava en los años veinte" de Antonio Izal, y la firma de un convenio con la UPNA para la realización de una investigación histórica sobre la localidad dirigida por el profesor Francisco Miranda.

A mediados de 2005 contaremos por fin con un espacio escénico, tras la rehabilitación del antiguo cine, lo que nos va a permitir mejorar la oferta cultural. Es un nuevo reto para el que nos estamos preparando.

No quiero terminar estas palabras sin agradecer a los diferentes profesionales que han colaborado con nosotros a lo largo de este año y que nos ayudan a que la vivencia cultural esté cada vez más presente en nuestra localidad.

**José Luis Úriz Iglesias**
Concejal Delegado de Cultura



## Aurkezpena

Eskura duzue, beste urte batez, Atarrabiako Udaleko Kultura Zerbitzuak iragan urtean aurrera eraman zituen aktibitateen Memoria.

2004. urtean zehar, herriko erakunde artistiko eta kulturalei ematen genien laguntzaren eta kalitatezko eskaintza kulturalaren sustapenaren arteko oreka bilatzen saiatu gara. Betiere, gure nahi izan da, publiko mota guztietara iristea.

Historikoak jo ditzakegun gabeziekin jarraitzen dugu; izan ere, gure herriak merezi duen Kultur Gunerik ez dugu oraindik eta, gainera, Udalek orokorrean pairatzen duten aurrekontu-mugek, gurean ere eragin handi dute. Apustu berbera mantentzen jarraitzen dugu; alegia, Europar Batasunak aholkatzen duen moduan, udal-aurrekontuaren %10 kultur jardueretarako egokitzea.

Hemen duzue urtean zehar eginiko ekitaldien laburpen gisakoa, bost arlotan banatuta. Kultur zabalkundearen arloan aipatzekoak dira ospaturiko kontzertuak eta hauen kalitatea: Carlos Chaouen, Los Van Van, Soziedad Alkoholika eta Fangoria. Hala ere, tamalgarria da Tangoaren I. Jaialdiak izan zuen harrera kaskarra.

Kultur Sormenaren arloan Petri Atarrabiako Literatur Sariketaren sendotzea nabarmendu behar, sona handiko epaimahaiak bermatua. Epaimahai berean, Rosa Regás (Liburutegi Nazionalaren Zuzendari lanak egiten gaur egun), Fernando Marías, Jose Mª Romera, Felipe Juaristi eta Juan Gartzia egoteak, gure mugak gainditzen dituen oihartzun kultural eta soziala ematen dio.

Herria sustatzeko eginiko aktibitateen artean Atarrabiako Gaien Bildumaren laugarren zenbakiaren 2000 ale argitaratu izana (Antonio Izal Monteroren "Atarrabia hogeiko hamarkadan"), eta Francisco Miranda irakasleak zuzenduko duen herriaren ikerketa historikoa egiteko NUPrekin sinaturiko hitzarmena azpimarratu behar dira.

2005eko erdialderako gune eszeniko berria izango dugu jada, antzinako zinea zaharberritu ondoren. Gertaera honek, eskaintza kulturala hobetzea ahalbidetuko digu. Prestatzen ari gara, bada, erronka berri honi aurre egiteko.

Ez dut amaitu nahi, aurten gurekin lankidetzan aritu diren profesional ezberdinak ahaztu gabe. Hauen laguntza ezinbestekoa izaten da, kulturak gero eta biziago jarrai dezan gure herrian.

**José Luis Úriz Iglesias**
Kultura Zinegotzi Delegatua

## Áreas. Arloak

Difusión cultural
Kultur zabalkundea

Creación cultural y formación
Kultur sormena eta prestakuntza

Promoción sociocultural de la localidad
Herriaren sustapen soziokulturala

Recreación / fiestas
Lakatzea / jaiak

Gestión de la Casa de Cultura
Kultur Etxearen kudeaketa

# Difusión cultural. Kultur zabalkundea

## Grandes espectáculos

El programa de grandes espectáculos, iniciado en 2001, se ha ido consolidando en sus cuatro ediciones con una buena acogida de público y una amplia repercusión en los medios de comunicación. Los espectáculos tienen lugar en el Polideportivo Hermanos Indurain. El 27 de marzo asistimos a un entrañable concierto de Carlos Chaouen. Del 29 de mayo al 5 de junio tuvo lugar el I Festival Internacional del Tango Burlada-Villava, que a pesar de la gran calidad de los artistas invitados, no despertó el interés del público. El 29 de mayo actuaron Rubén Juárez y Los Morochos y el 5 de Junio Amelita Baltar, Horacio Ferrer y Alejandro Carrouche. El festival se completó con exposiciones, cine-forum, conferencias, exhibición de bailarines, milongas, animación de calle y conciertos a cargo de Patricia Nora y Embretango. El 26 de junio nos sedujeron los ritmos cubanos de Los Van Van. Este programa lo cerró el 22 de octubre Fangoria con su “Arquitectura efímera”. Estos dos últimos conciertos contaron con un gran éxito de público.

## Ikuskizun handiak

Ikuskizun handiei eskainitako egitaraua, 2001. urtean abiarazi zena, errotzen joan da azken lau urteotan. Harrera ona izan du jendearen aldetik eta oihartzun handia, berriz, komunikabidetan. Ikuskizunak, Indurain Anaiak Kiroldegian egin dira. Martxoaren 27an Carlos Chaouenen kontzertu ziragarria izan genuen. Maiatzaren 29tik ekainaren 5era Burlata-Atarrabiako Nazioarteko I. Tango Jaialdia burutu zen. Gonbidaturiko artistak kalitate handikoak izan arren, Jaialdiak ez zuen jendearengandik espero genuen adinako harrera onik izan. Maiatzaren 29an Ruben Juarez eta Los Morochos aritu ziren eta ekainaren 5ean, berriz, Amelita Baltar, Horacio Ferrer eta Alejandro Carroucheren txanda izan zen. Jaialdia osatzeko erakusketak, zine-forumak, hitzaldiak, dantzarien erakustaldiak, milongak, kale-animazioa eta Patricia Nora eta Embretangoren kontzertuak ospatu ziren. Ekainaren 26an Los Van Van talde kubatarren doinuek liluratu egin gintuzten. Ikuskizun handien egitarauari amaiera emateko Fangoriaren “Arquitectura efímera” izan genuen urriaren 22an. Azken bi kontzertu hauetan jendea erruz izan zen.



Carlos Chaouen.



Concierto de Los Van Van.





I Festival Internacional del Tango Burlada-Villava.

Espectáculos: 5. Asistentes: 4.200

Ikuskizunak: 5. Bertaratuak: 4.200

## Música

En 2004 disfrutamos del Coro de Cámara Aizaga con motivo de los conciertos Sacros, de la Coral de Cámara de Pamplona el Día de San Andrés y del Coro Arlás el Día de Navarra. La Coral San Andrés ofreció los conciertos Sacro, concierto de Fiestas y de Navidad. Los alumnos de la Escuela de Música Hilarión Eslava realizaron un concierto escolar y actuaron el Día del Centro, en Santa Cecilia, con motivo del Premio Hilarión Eslava y en Navidad. En Ritmos 2004 actuaron Ajariguan y Soziedad Alkoholika, con gran éxito de público joven.

## Musika

2004an Aizaga Ganbara Abesbatza izan genuen Kontzertu Sakroetan, Iruñeko Ganbara Abesbatza San Andres Egunean eta Arlás Abesbatza, berriz, Nafarroaren Egunean. Gainera, San Andres Abesbatzaren hiru kontzertu izan ziren: Sakroa, Jaietakoa eta Eguberrietakoa. Hilarion Eslava Musika Eskolako ikasleek eskola-kontzertua eman zuten, eta ondokoetan ere jo zuten: Ikastetxearen Egunean, Santa Zezilian, Hilarion Eslava Sarian eta Eguberrietan. Aurtengo Ritmos 2004an Ajariguan eta Bide Ertzean taldeak aritu zitzaizkigun. Gazte-jendearen aldetik oso arrakastatsuak izan ziren.



Soziedad Alkoholika.



Concierto de Santa Cecilia.

Conciertos: 12. Asistentes: 5.250

Kontzertuak: 12. Bertaratuak: 5.250

## Artes escénicas

A pesar de no contar la localidad con un espacio escénico, la oferta teatral no desmereció a lo largo del año. Contamos con dos ciclos de teatro de sala: la IV Muestra de Teatro de Aquí (marzo), que contó con las compañías La Ortiga, Iluna y La Bolla, y el Ciclo de Teatro en Euskera (noviembre), novedad de este año, con Bikoteatroa y Vaiven Producciones. Disfrutamos de un espléndido espectáculo de danza/percusión “Malaje” a cargo de la compañía Albadulake el 5 de noviembre. Para el público infantil se programaron la XIII Campaña de Teatro Escolar (Paraíso), teatro de calle en Carnavales (Detraka y La Banda), marionetas en verano (Teatro DI y Humo) y teatro infantil en Navidad (TEN). Los espectáculos de calle del verano contaron con la presencia de T'ombligo, Pingaliraina, La Industrial Teatrera y Rolabola. El espectáculo pre-fiestas fue “Matraka”, de la compañía Hortzmuga.

## Arte eszenikoak

Herrian gune eszenikorik ez izan'arren, antzerki-eskaintza maila handikoa izan genuen aurten ere. Aretoan egiteko bi antzerki ziklo izan ditugu: Bertako Antzerkia (martxoa), laugarren edizioan La Ortiga, Iluna eta La Bolla taldeekin; eta, lehen aldiz, Euskarazko Antzerki Zikloa (azaroa), Bikoteatroa eta eta Vaiven Produkzioak ekarri zituena. Azaroaren 5ean Albadulake Konpainiaren “Malaje” dantza eta perkusio-ikuskizun ederraz gozatzeko aukera izan genuen. Haurrentzako saioei dagokienez, honako hauek: Eskola Antzerkiaren XIII. Kanpaina (Paraiso), kale antzerkia Inauterietan (Detraka eta La Banda), txotxongiloak udan (Teatro DI eta Humo) eta



Teatro infantil.



Matraka.

Espectáculos: 19. Espectadores: 4.715

Ikuskizunak: 19. Ikusleak: 4.715

haurrentzako antzerkia Eguberrietan (TEN). Udako kaleko emanaldietan T'Ombligo, Pingaliraina, La Industrial Teatrera eta Rolabola taldeak aritu ziren. Jai aurreko ikuskizuna Hortzmuga konpainiaren "Matraka" izenekoa izan zen.

## Cine

La programación de cine al aire libre del mes de agosto es una de las actividades con mayor respuesta de público, con un promedio de 650 espectadores por sesión. Algunas de las películas que se pudieron ver fueron: "El último Samurai", "Troya", "Matrix Revolutions", "Harry Poter y el prisionero de Azkaban", "La mala educación" y "Días de fútbol". En total fueron 14 las proyecciones realizadas. Los lunes estuvieron dedicados al público infantil, los jueves a las personas adultas y los domingos al público juvenil. Por Navidad se proyectaron cuatro películas destinadas al público infantil ("Garfield", "Prop&Berta", "Hermano Oso" y "Olentzero") en la sala Totem, con buena acogida de público.

## Zinea

Abuztuan zehar aire librean egiten diren proiekzioek osatzen duten egitaraua da aktibitaterik arrakastatsuenetakoa. Bataz beste 650 ikusle izaten dira saioko. Proiektatu ziren filmetako batzuk hauek izan ziren: "El último Samurai", "Troya", "Matrix Revolutions", "Harry Poter y el prisionero de Azkaban", "La mala educación" eta "Días de futbol". Osotara 14 emanaldi izan ziren. Astelehenak haurrentzat izan ziren, ostegunak helduentzat eta igandeak gazteentzat. Eguberrietan haurrentzako lau filma proiektatu ziren ("Garfield", "Prop&Berta", "Hermano Oso" eta "Olentzero") Totem aretoan, sekulako harrera izan zutenak.




El último samurai.




Piratas del Caribe.

Proyecciones: 18. Espectadores: 9.750

Proiekzioak: 18. Ikusleak: 9.750

## Literatura

468 estudiantes de los colegios Lorenzo Goicoa, Atargi y La Presentación participaron durante el curso 2003/04 en la XI Campaña de Animación a la Lectura, organizada por diez Ayuntamientos de la comarca de Pamplona a través de la entidad FIRA. La campaña consistió en siete sesiones de narración oral, tres encuentros de escritor y lectores y dos sesiones de orientación con el profesorado. Se editó el nº 7 del boletín CALCO.

Del 20 al 25 de abril tuvo lugar la X Semana de Animación a la Lectura, que ofreció una gymkana literaria, dos sesiones de narración oral para público familiar, una sesión para mujeres y tres sesiones para jóvenes y una exposición de álbumes ilustrados. El sábado 24 la Biblioteca pública salió a la calle con motivo del Día del Libro.

En julio y agosto se trasladó la Biblioteca pública a las Piscinas Municipales.

## Literatura

Lorenzo Goicoa, Atargi eta La Presentación ikastetxeko 468 ikaslek hartu zuten parte FIRA erakundearen bitartez Iruñerriko hamar Udalek antolaturiko Irakurketa Sustatzeko XI. Astean, 2003-2004 ikasturtean. Honetan, ahozko kontakizunen zazpi saio, egileen eta irakurleen hiru topaketa eta irakasleentzako bi orientazio-saio burutu ziren. Kanpainari amaiera emateko CALCO buletinaren 7. zenbakia argitaratu zen.

Apirilaren 20tik 25era bitarteko Irakurketa Sustatzeko X. Astea ospatu zen. Honetan hainbat aktibitate egin ziren: literatur ginkana, familiarentzako ahozko kontakizunak (bi saio), emakumeentzako saio bat eta gazteentzako hiru, album irudiztaturikoen erakusketa. Hilaren 24an, larunbatez, Liburutegi Publikoa kalera atera zen, Liburuaren Eguna zela aitzakia.

Uztailean eta abuztuan Liburutegi Publikoa Udal Igerilekuetan paratu zen.



Semana de animación a la lectura.



Biblioteca en las piscinas.

Acciones: 22. Participantes: 2.013

Jarduerak: 22. Partehartzaileak: 2.013

## Artes plásticas

En 2004 se programaron veintidós exposiciones, de fotografía y pintura principalmente. Entre las de pintura destacó la de Asunción San Martín, así como la muestra de "Paisaje navarro" a cargo de alumnas/os del curso de Milagros Gay. En fotografía destacaron las exposiciones de Iñaki Vergara y Jesús Calvo. En mayo y junio tuvieron lugar las exposiciones de fin de curso de los talleres infantiles y de los cursos de ocio de la Casa de Cultura. El 30 de mayo se presentó la obra sobre papel del Concurso Parque Fluvial de la Comarca de Pamplona. Los premiados fueron Gentz del Valle, Miren Huarte y Carmen Salgado.

## Arte plastikoak

Aurten, argazkigintza eta margolaritza arloetako hogeita bi erakusketa antolatu dira. Margolaritza erakusketen artean Asunción San Martinena eta, halaber, Milagros Gayren ikasleen "Nafarroako Paisaiak" izenekoa nabarmendu behar dira. Argazkigintzan, berriz, Iñaki Vergararen eta Jesus Calvoren erakusketak aipatu behar dira. Urtero bezala, maiatzean eta ekainean, Kultur Etxeko haurrentzako tailerren eta aisialdiko tailerren erakusketak egin ziren. Maiatzaren 30ean Iruñerriko Ibai Parkearen Lehiaketaren paperean eginiko lana aurkeztu zen. Irabazleak hauek izan ziren: Gentz del Valle, Miren Huarte eta Carmen Salgado.



Exposición sobre Ecuador.



Cerámica de Carmentxu Fernández.

Exposiciones: 22. Participantes: 5.600

Erakusketak: 22. Partehartzaileak: 5.600

# Creación cultural y formación. Kultur sormena eta prestakuntza

## Convenios con entidades artísticas

Los convenios que el Servicio de Cultura firma con las entidades artísticas y musicales de la localidad tienen un carácter de ayuda-subvención y constituyen una medida de apoyo a las entidades artísticas estables. En 2004 se firmaron convenios con trece entidades: Coral San Andrés, Comparsa de Gigantes, Comparsa de Kilikis, Txaranga Zintzarri, Acordeones Jaialdi, Gaiteros, Txistularis, Mikelats, Zanpantzar, Gas Taldea y grupos de danzas txikis de Idoskia, La Presentación y Paz de Ziganda, y se han patrocinado 53 actuaciones en diferentes momentos del año (Cabalgata de Reyes, Carnaval, Semana Santa, Día del Libro, Atarrabiako Eguna, Fiestas Patronales, San Andrés y Olentzero). Se incrementó en un 4% la partida presupuestaria, repartiéndose 20.671 euros entre las entidades artísticas y musicales de la localidad.

## Hitzarmenak erakunde artistikoekin

Kultur Zerbitzuak herriko erakunde artistikoekin sinatzen dituen hitzarmenak laguntza-subentzio moduko bat izan daitezen nahi da eta erakunde artistiko iraunkorrei laguntzeko neurria dira. 2004an hamahiru erakunderekin sinatu dira hitzarmenak: San Andrés Abesbatza, Erraldoien Konpartsa, Kilikien Konpartsa, Zintzarri Txaranga, Jaialdi Akordeoiak, Gaitariak, Txistulariak, Mikelats, Zanpantzar, Gas Taldea eta Idoskia, La Presentación eta Paz Ziganda dantza talde txikiak. Bestalde, urtean zehar eginiko 53 emanaldi diruz babestu dira (Erregeen Kabalgata, Inauteriak, Aste Santua, Liburuaren Eguna, Atarrabiako Eguna, Herriko Jaiak, San Andres eta Olentzero). Urte honetan kontu-sail honek %4 egin du gora eta 20.671 euro banatu dira herriko erakunde artistiko eta musikalen artean.



Coral San Andrés.

**Evolución del importe asignado en los últimos seis años a convenios**
**Hitzarmenengatiko diru-kopuruaren bilakaera azken sei urteotan**




## XVI Certamen Literario Pedro de Atarrabia

En los cuatro últimos años se ha ido consolidando el Certamen Literario Pedro de Atarrabia en el panorama literario nacional. La participación en la modalidad de castellano ha sido importante, con 377 relatos. En euskera fueron 13 los relatos presentados. La cuantía de los premios fue de 2.500 euros por modalidad. El certamen cuenta con un jurado de reconocido prestigio literario (Rosa Regàs, Fernando Marías, Felipe Juaristi, Juan Garzia y José Mª Romera). En esta XVI edición el premio en la modalidad de castellano recayó en el relato "El apartamento", de Antonio Hermogenes Ortega Pomet y el premio en la modalidad de euskera recayó en el relato "Medikuaren Alaba", de Xabier Etzaniz Rojo.

## Petri Atarrabiako XVI. Literatur Sariketa

Azken lau urteotan Petri Atarrabiako Literatur Sariketa errotzen joan da Espainia mailako literatur sarien artean. Aurtengo partehartzea nabarmentzekoa izan da oso: 377 lan aurkeztu dira gazteleraz; euskaraz, berriz, 13. Saria 2.500 eurotako da modalitateko. Gainera, sariketaren epaimahaia literatura munduan sona handia duten pertsonek osatzen dute (Rosa Regàs, Fernando Marías, Felipe Juaristi, Juan Garzia eta José Mª Romera). XVI. edizio honetako irabazlea gaztelerazko modalitatean Antonio Hermogenes Ortega Pomet idazlearen "El apartamento" izeneko lana izan zen. Euskarazkoan, berriz, Xabier Etxaniz Rojoren "Medikuaren Alaba" izeneko kontakizuna izan zen irabazlea.



Fallo del jurado del premio Pedro de Atarrabia.

Relatos presentados: 390
Aurkezturiko lanak: 390

## XV Concurso de Narrativa Infantil

Un año más la participación de nuestros escolares en el certamen narrativo fue importante. Se presentaron 96 relatos, 38 en euskera y 58 en castellano. En la modalidad de castellano, en la categoría III Ciclo de Primaria, el primer premio fue para Vanesa Martínez Asiáin, del colegio Lorenzo Goicoa, mientras que el segundo premio fue para Laiene Crespo Arozena, del colegio Atargi. Por su parte, en la categoría 1º y 2º de E.S.O., el primer premio fue para Leyre Armendáriz Piñedo, del colegio La Presentación, y el segundo premio para Tania Jorajuria Gómez, de la Ikastola Paz de Ziganda. En la modalidad de euskera, en la categoría III Ciclo de Primaria, el primer premio fue para Patxi Hervás Ruiz, del colegio Atargi, mientras que el segundo fue para Claudia del Río Eugui, de la Ikastola Paz de Ziganda. Finalmente, en la categoría de 1º y 2º de E.S.O., el primer premio fue para Beatriz Chivite Ezkieta, del Instituto Askatasuna, y el segundo para Ibai Díaz Etxarri, del Instituto Askatasuna.

## Haurrentzako XV. Literatur Sariketa

Beste urte batez, gure ikasleen partehartzea Literatur Sariketa honetan oso zabala izan zen. Osotara 96 lan aurkeztu ziren: 38 euskaraz eta 58 gazteleraz. Gazteleraz eta Lehen Hezkuntzako III. Zikloan Lorenzo Goicoako Vanesa Martínez Asiainek irabazi zuen lehen saria, Atargiko Laiene Crespo Arozenak irabazi zuen bigarrena. DBHko 1. eta 2. mailan, berriz, La Presentación Ikastetxeko Leyre Armendariz Piñedok irabazi zuen lehen saria eta Paz de Zigandako Tania Jorajuria Gómezek eskuratu zuen bigarrena. Euskarazko modalitatean eta



Premiados en el XV Concurso de Narrativa Infantil.

Relatos presentados: 96
Raurkezturiko lanak: 96

# Creación cultural y formación. Kultur sormena eta prestakuntza

Lehen Hezkuntzako III. Zikloan Patxi Hervás Ruiz, Atargikoa, suertatu zen irabazle. Bigarren sariaren irabazlea Paz de Zigandako Claudia Del Río Eugi izan zen. Azkenik, DBHko 1. eta 2. mailetako irabazlea Askatasuna Institutuko Beatriz Chivite Ezkieta izan zen. Bigarren saria ikastetxeko bereko Ibai Diaz Etxarrik eskuratu zuen.

## IX Certamen de Fotografía Besta-Jira

El Certamen de Fotografía Besta-Jira también se ha ido consolidando en estos últimos años. A su edición IX se presentaron un total de 81 fotografías: 29 en blanco y negro y 52 en color. El jurado estuvo compuesto por Paco Ocaña, Adolfo Lacunza, José Mª Ballesta y Juantxo Oskoz. En la modalidad de blanco y negro el primer premio fue para Juan Jesús Huelva Esteban y el segundo premio para Antonio Benítez Barrios. En la modalidad de color el primer premio quedó desierto y el segundo premio fue para Juan Jesús Huelva Esteban. El jurado decidió conceder dos accésit a Lander Goñi Irigoyen y a Jesús Vera Beorlegui.

## Besta-Jira IX. Argazki Lehiaketa

"Besta Jira" Argazki Lehiaketa ere sendotzen joan da urteotan. IX. edizio honetan 81 argazki aurkeztu ziren: 29 zuri-beltzean eta 52 koloretan. Epaimahaia ondokoek osatu zuten: Paco Ocañak, Adolfo Lacunzak, José Mª Ballestak eta Juantxo Oskozek. Zuri-beltzean lehen saria Juan Jesús Huelva Estebanek irabazi zuen eta Antonio Benítez Barriosek bigarrena. Koloretan, berriz, lehen saria eman gabe geratu zen eta Juan Jesús Huelva Estebanek eskuratu zuen bigarrena. Epaimahaiak bi akzesit ematea erabaki zuen, Lander Goñi Irigoyeni bata eta Jesús Vera Beorleguiri bestea.



Premiados en los certámenes de literatura y fotografía.

Fotografías presentadas: 81
Aurkezturiko argazkiak: 81

## Talleres infantiles

Durante el curso 2003-2004 un total de 130 niños y niñas han tomado parte en el desarrollo de los talleres infantiles de expresión plástica, pintura y danzas. El total de horas impartidas fue de 269. Los talleres se presentan como un espacio de relación y creatividad que fomenta la socialización y el potencial artístico del niñ@.

## Haurrentzako tailerrak

2003-2004 ikasturtea zehar 130 neska-mutikok hartu dute parte haurrentzako tailerretan (adierazpen plastikoa, margolaritza eta dantzak). Osotara 269 ordu izan ziren. Tailer hauek haurren arteko elkarbizitza eta potentzial artistikoa areagotzen duten harreman eta sormen guneak dira.




Folleto de los talleres infantiles.

| Taller<br>Tailerra | Grupos<br>Taldeak | Matrícula<br>Matrikula | Horas<br>Orduak |
|---|---|---|---|
| Exp. Plástica (castellano)<br>Adi. Plastikoa (gaztelera) | 1 | 5 | 22 |
| Exp. Plástica (euskera)<br>Adi. Plastikoa (euskara) | 1 | 6 | 22 |
| Pintura (castellano)<br>Margolaritza (gaztelera) | 1 | 9 | 25 |
| Pintura (euskera)<br>Margolaritza (euskara) | 1 | 14 | 23 |
| Danzas (euskera)<br>Dantzak (euskara) | 6 | 96 | 177 |

## Cursos para un ocio creativo

La oferta de cursos para un ocio creativo va ganando en variedad, posibilitando a jóvenes y adultos un acercamiento a diferentes disciplinas artísticas y lúdicas. En el curso 2003-2004 participaron 127 personas en los 10 cursos programados. El total de horas lectivas fue de 436.

## Aisialdi sortzailerako ikastaroak

Aisialdi sortzailerako ikastaroen eskaintza zabaltzen ari da. Honela, gazte eta helduei jarduera artistiko eta jokozko ezberdinetara hurbiltzeko aukera ematen zaie. 2003-2004 ikasturtean 127 lagunek parte hartu zuten programaturiko 10 ikastaroetan. Osotara 436 ordu izan ziren.




Folleto de los cursos para un ocio creativo.

## Cursos de educación de personas adultas

El Servicio de Cultura viene apoyando a través de una subvención los cursos de Educación de Personas Adultas que realiza el Departamento de Educación del Gobierno de Navarra. En el curso 2003-2004, 14 personas de nuestra localidad asistieron a cursos de formación personal, formación reglada y clases de castellano para extranjeros.

## Helduentzako hezkuntza ikastaroak

Kultura Zerbitzuak bultzatzen dihardu Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak antolatzen dituen Helduentzako Hezkuntza Ikastaroak. 2003-2004 ikasturtean gure herriko 14 lagunek hartu zuten parte zenbait ikastarotan: heziketa pertsonala, hezkuntza arautua eta gaztelera atzerritarrentzat.

| Taller<br>Tailerra | Grupos<br>Taldeak | Matrícula<br>Matrikula | Horas<br>Orduak |
|---|---|---|---|
| Informática | 2 | 20 | 80 |
| Bailes latinos | 1 | 19 | 39 |
| Teatro | 1 | 17 | 48 |
| Fotografía (nivel 1) | 1 | 11 | 39 |
| Fotografía (nivel 2) | 1 | 10 | 39 |
| Fotografía (monográfico) | 1 | 10 | 37 |
| Pintura Oleo | 2 | 32 | 102 |
| Acceso a la Universidad | 1 | 8 | 52 |

# Creación cultural y formación. Kultur sormena eta prestakuntza

## Adquisición de obra artística

Desde hace siete años el Servicio de Cultura viene adquiriendo obra artística de los artistas que durante el año exponen en la Casa de Cultura con el objetivo de crear una modesta colección municipal. En 2004 se adquirieron dos lienzos de Asunción San Martín "Presa de Villava" y "Río Ulzama". El Ayuntamiento posee 21 obras en propiedad, fundamentalmente de pintores de la localidad.

## Artelanen erostea

Zazpi urtetik hona Kultura Zerbitzuak Kultur Etxean beren lanak erakusten dituzten artisten lanak erosten ditu. Honen helburua da udal bilduma xume bat osatzea. 2004an, Asunción San Martinen "Presa de Villava" eta "Río Ulzama" izeneko mihiseak bereganatu ditu. Udalak 21 margolan ditu jabegoan, herriko margolarienak gehienak.


Presa de Villava, de Asunción San Martín.

# Promoción sociocultural de la localidad. Herriaren sustapen soziokulturala

## Subvenciones a entidades y asociaciones

Con el objetivo de apoyar económicamente las actividades que realizan nuestras entidades y colectivos, el Servicio de Cultura concede anualmente subvenciones a las entidades culturales y a las asociaciones de padres y madres de los centros escolares. En 2004 se incrementó en un 4% la partida presupuestaria, repartiéndose 12.479 euros entre las entidades y asociaciones de la localidad.
Las entidades culturales objeto de subvención durante el año 2004 fueron: Asociación Irati (3.000 euros), Asociación de Belenistas San Andrés (750 euros), Mikelats (750 euros) y Karrikaluze (2.000 euros). Por su parte, las asociaciones de padres y madres de centros educativos que han recibido subvención han sido: la APYMA de Lorenzo Goicoa (1.550 euros), la APYMA Idoskia de Atargi (1.650 euros), la APYMA del Colegio La Presentación (1.705 euros), la APYMA del Instituto Ibaialde (450 euros) y la APYMA de la Ikastola Paz de Ziganda (450 euros).

**Evolución del importe asignado en los últimos años a subvenciones**
**Dirulaguntzen osotarako kopuruaren bilakaera**




## Dirulaguntzak erakunde eta taldeei

Herriko erakunde eta elkarteek burutzen dituzten aktibitateak diruz laguntzeko xedearekin, Kultura Zerbitzuak dirulaguntzak ematen dizkie, urtero, kultur erakundeei eta ikastetxeetako guraso elkarteei. 2004an %4 egin du gora honetarako kontu-sailak eta osotara 12.479 euro banatu dira herriko erakunde eta elkarteen artean.
2004an dirulaguntza jaso duten kultur erakundeak hauek izan dira: Irati Elkartea (3.000 euro), San Andres Jaiotzazaleen Elkartea (750 euro), Mikelats (750 euro) eta Karrikaluze (2.000 euro). Bestalde, ikastetxeetako guraso elkarte hauek ere dirulaguntza jaso dute: Lorenzo Goicoako Guraso Elkartea (1.550 euro), Atargiko Idoskia Guraso Elkartea (1.650 euro), La Presentación Ikastetxeko Guraso Elkartea (1.705 euro), Ibaialde Institutuko Guraso Elkartea (450 euro) eta Paz Ziganda Ikastolako Guraso Elkartea (450 euro).

## Patrocinios

El Servicio de Cultura ha destinado este año 15.593 euros a patrocinar diferentes actos culturales. Los actos, las entidades y los importes del patrocinio municipal son:
- Atarrabiako Eguna (Sociedad Etxe-Beltza): 6.614 euros.
- IV Torneo Escolar de Ajedrez (Sociedad Gaizpegi): 780 euros.
- XIV Torneo Internacional de Ajedrez (Paz de Ziganda): 624 euros.
- Carnavales y Olentzero (Sociedad Etxe-Beltza): 3.750 euros.
- XIII Festival de Villancicos (Asociación de Belenistas San Andrés): 855 euros.
- X Aniversario de la Asociación de Belenistas San Andrés: 3.000 euros.

## Babeseak

Kultura Zerbitzuak 15.593 euro zuzendu ditu hainbat kultur jarduera diruz laguntzeko. Udalaren dirulaguntza jaso duten jarduerak eta horien antolatzaileak ondokoak dira:
- Atarrabiako Eguna (Etxe-Beltza Elkartea) 6.614 euro.
- Gaizpegi Elkartearen Eskola Mailako IV. Xake Lehiaketa. 780 euro.
- Paz de Zigandaren Nazioarteko XIV. Xake Lehiaketa. 624 euro.
- Inauteriak eta Olentzero (Etxe-Beltza Elkartea) 3.750 euro.
- San Andres Jaiotzazaleen Gabon Kanten XIII. Jaialdia. 855 euro.
- San Andres Jaiotzazaleen X. Urteurrena. 3.000 euro.


Ajedrez en la sociedad Gaizpegi.


Atarrabiako Eguna.


Carnavales.


Olentzero.

## Promoción sociocultural de la localidad. Herriaren sustapen soziokulturala

### Colección de Temas Villaveses

Con el objetivo de difundir diferentes aspectos (históricos, culturales, artísticos y folclóricos) de nuestra villa, se creó en 2001 la Colección de Temas Villaveses. En 2004 se editó el cuarto número, "Villava en los años veinte", de Antonio Izal Montero, que recoge en 150 páginas los recuerdos que el autor atesora en su lúcida memoria de cómo era Villava en los años veinte. Se realizó una edición gratuita de 2.000 ejemplares, ya agotada.

### Atarrabiako Gaien Bilduma

Gure herriaren bizitzaren hainbat alderdi zabaltzeko asmoz (historia, kultura, artea eta folklorea) "Atarrabiako Gaien Bilduma" sortu zen 2001ean. 2004an, laugarren zenbakia argitaratu da, Antonio Izal Monteroren "Atarrabia hogeiko hamarkadan". Liburu hau osatzen duten 150 orrialdeetan, egileak, bere oroimen argiaren bidez, hogeiko hamarkadako Atarrabiako oroitzapenak jasotzen ditu. Doan banatzeko ziren 2.000 aleko argitalpena agortua dago.



Antonio Izal, en la presentación del cuarto número de la colección Temas Villaveses.



Portada del libro.

### Proyecto de investigación histórica sobre Villava

El Ayuntamiento de Villava y la Universidad Pública de Navarra han firmado un convenio para la realización de una investigación histórica sobre Villava-Atarrabia que permita conocer mejor su evolución histórica desde su fundación en 1184. La investigación ha sido encargada al Departamento de Historia Contemporánea de la UPNA y estará dirigida por el profesor Francisco Miranda, quien se acompañará de un equipo de doctores investigadores.

### Atarrabiari buruzko ikerketa historikoa

Atarrabiako Udalak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak Atarrabiari buruzko ikerketa historikoa burutzeko hitzarmena sinatu dute. Ikerketa honen helburua da, 1184an sortu zenetik, herriak izan duen bilakaera historikoa hobeki ezagutzeko bidea eskaintzea. Ikerketaren ardura Francisco Miranda irakasleak zuzentzen duen NUPko Historia Garaikideko Departamentuak izanen du. Miranda irakasleak doktore-ikertzaile talde baten laguntza izanen du.



Firma del convenio con la UPNA para el proyecto de investigación histórica sobre Villava-Atarrabia.

### II Premio de Investigación Sancho VI el Sabio

Con la finalidad de fomentar la labor de investigación y facilitar un conocimiento más exhaustivo de nuestro municipio, el Servicio de Cultura convoca anualmente el Premio de Investigación Sancho VI el Sabio, dotado con 3.000 euros. En esta segunda edición quedó desierto al no reunir el trabajo presentado, a criterio del jurado, la suficiente labor investigadora.

### Antso VI. Jakituna II. Ikerketa saria

Ikerketa lana sustatzeko eta gure herria modu sakonagoan ezagutzeko xedearekin, Kultura Zerbitzuak Antso VI. Jakituna Ikerketa Sariaren deialdia egiten du urtero, 3.000 eurotako dirusaria duena. Bigarren edizio honetan saria eman gabe geratu da, epaimahaiaren aburuz, aurkezturiko lanak, ikerketa-lan nahikorik erakusten ez zuelako.



Díptico anunciador del premio.

### III Guía de Artistas y Artesanos de la localidad

La guía, que se elabora cada cuatro años, tiene la finalidad de apoyar la labor creadora de nuestros artistas y poder mostrar su evolución. Los artistas y artesanos participantes en esta edición son, en pintura: Francisco Javier Abadía, Cristina Calvo, Rosa Mª de la Calle, Judith Esnoz, Milagros García, Milagros Gay, Mintxo Ilundain, Mª Ángeles Jurío, Luis Liberal, Mª José López, Iñaki Lleida, Mª Nieves Maya, José Mª Pastor, Natividad Pérez, Alfonso Prim, Puri Sorbet y Ricardo Zugasti; en fotografía: José Mª Ballesta, Jesús Calvo, Olga Izco, Adolfo Lacunza, Paco Ocaña, Félix Ruiz y Santiago Torrado; en estampación: Loli Noguera; en escultura: Félix Ruiz; en grabado: Karmele Sevillano; en maquetismo: Gerardo Lora; en orfebrería: Koldobika Domentx; y en talla de madera: Javier Mendióroz.

### Artista eta artisauen III. Gida

Gida hau lau urtez behin osatzen da, gure artisten sormen lana zabaltzeko xedearekin eta hauen bilakaera erakutsi asmoz. Edizio honetan parte hartu duten artistak eta artisauak hauek dira. Margolariak: Francisco Javier Abadía, Cristina Calvo, Rosa Mª De la Calle, Judith Esnoz, Milagros García, Milagros Gay, Mintxo Ilundain, Mª Angeles Jurio, Luis Liberal, Mª José López, Iñaki Lleida, Mª Nieves Maya, José Mª Pastor, Natividad Pérez, Alfonso Prim, Puri Sorbet eta Ricardo Zugasti; argazkilariak: José Mª Ballesta, Jesús Calvo, Olga Izco, Adolfo Lacunza, Paco Ocaña, Félix Ruiz, Santiago Torrado; estanpazioan: Loli Noguera; eskulturagileak: Felix Ruiz; grabatuan: Karmele Sevillano; maketa lanean: Gerardo Lora; bitxigintza: Koldobika Domentx; zuraren lanketa: Javier Mendioroz.



Portada de la guía.



Escultura de Félix Ruiz.



Óleo de Mintxo Ilundain.

## Recreación / fiestas. Lakatzea / jaiak

El 5 de enero pudimos disfrutar de la **Cabalgata de Reyes**, que contó con la presencia de cinco carrozas, diferentes personajes de animación, jinetes a caballo, gaiteros y txistularis. Las personas elegidas por la comisión que prepara la Cabalgata para el papel de reyes fueron Carlos Elizalde, del grupo Scout, Mikel Nevado, de la comparsa de Kilikis, y Pergentino Manene, de la Residencia Amor Misericordioso.



Cabalgata de reyes.

El **Día del Libro** lo celebramos el 24 de abril con la instalación de un stand de libros a cargo de la Biblioteca pública y una exposición de álbumes ilustrados. La banda de la Escuela de Música Hilarión Eslava ofreció un ameno concierto y el final de la jornada contó con la animación de la Txaranga Zintzarri y la Comparsa de Kilikis.



Día del Libro.

La **Festividad de San Andrés** (30 de noviembre, patrón de la localidad) contó con un variado programa de actos donde se combinaron los institucionales (entrega de los premios de los certámenes), los festivos (dianas, parques infantiles y música en la calle) y los culturales (magnífico concierto de la Coral de Música de Pamplona). Novedad de este año fue el homenaje que rindió el Ayuntamiento a los 39 vecinos fallecidos en la última guerra civil.

Mención aparte merecen las **Fiestas Patronales**, nueve días y 121 actos festivos que tuvieron lugar del 2 al 10 de Octubre. El Servicio de Cultura fue, un año más, el encargado de planificar y coordinar el programa de actos.

Urtarrilaren 5ean **Erregeen Kabalgataz** gozatzeko aukera izan genuen. Aurten bost karroza, animazioko pertsonaia ezberdinak, zaldunak eta gaitariak eta txistulariak ikusi genituen bertan. Kabalgata prestatzen duen batzordeak errege lanak egiteko aukeratu zituenak hauek izan ziren: Carlos Elizalde Scout Taldekoa, Mikel Nevado Kilikien Konpartsakoa eta Pergentino Manene Maitasun Errukiorraren Egoitzakoa.



San Andrés.

**Liburuaren Eguna** apirilaren 24an ospatu genuen. Liburutegi Publikoak liburuen stand-a paratu eta irudiztatutako albumen erakusketa antolatu zuen. Hilarión Eslava Musika Eskolako bandak kontzertu erakargarri bat eskaini zigun. Eguna amaitzeko Zintzarri Txarangaren eta Kilikien Konpartsaren animazioa izan genuen.



Día de Navarra.

**San Andrés Egunak** (azaroak 30, herriko patroiaren eguna) egitarau anitza izan zuen. Honetan, ekitaldi instituzionalak (literatura eta argazki sariketen sari-banaketak), jai girokoak (dianak, haurrentzako parkeak, eta musika kaleetan) eta kulturalak (Iruñeko Ganbara Abesbatzaren sekulako kontzertua) uztartu ziren. Aurtengo berrikuntza Udalak azken gerra zibilean hildako 39 herritarrei eginiko omenaldia izan zen.

**Herriko Jaiek** aipamen berezia merezi dute: urriaren 2tik 10era bitarte luzatu ziren bederatzi egun eta 121 ekitaldi. Kultura Zerbitzua izan da, beste urte batez, ekitaldien egitarauaren plangintzaz eta koordinazioaz arduratu dena.

## Gestión de la Casa de Cultura. Kultur Etxearen kudeaketa

La Casa de Cultura nació en 1982 con el fin de contribuir a la promoción de la cultura en sus más variadas manifestaciones y de servir como cauce de participación y punto de referencia sociocultural para los ciudadanos/as de Villava.

La Casa de Cultura es el principal equipamiento sociocultural que tiene a su disposición el Servicio de Cultura del Ayuntamiento para desarrollar anualmente su programa de actividades.

En la Casa de Cultura están ubicados diferentes servicios: la administración y la dirección técnica del Servicio de Cultura, la Biblioteca pública e IKA.

Además, la Casa de Cultura realiza una importante labor de promoción sociocultural facilitando el uso de sus salas y espacios a las diferentes asociaciones, entidades y colectivos de la localidad.

Los datos referentes al uso de salas de la Casa de Cultura ponen de manifiesto la existencia de un amplio y activo tejido social en nuestra localidad.

A continuación reflejamos el número de veces que fueron utilizadas las salas de la Casa de Cultura a lo largo del año 2004, tanto de forma permanente como puntual por diferentes entidades y colectivos, así como por los propios servicios del Ayuntamiento.

Kultur Etxea 1982an sortu zen, kulturaren alderdi guztiak sustatzen laguntzeko helburuarekin. Halaber, partehartze bide bat eta maila soziokulturalean erreferentzia gune izan nahi zuen Atarrabiako biztanleentzat.

Kultur Etxea da Udaleko Kultura Zerbitzuak bere urteko jarduera aurrera eramateko duen ekipamendu garrantzitsuena.

Kultur Etxean hainbat zerbitzu daude kokaturik: Kultura Zerbitzuaren administrazioa eta zuzendaritza teknikoa, Liburutegi Publikoa eta IKA euskaltegia.

Zerbitzu hauek emateaz gain Kultur Etxeak sustapen lan handia egiten du maila soziokulturalean, herriko elkarte, erakunde eta taldeei bertako gelak eta guneak erabili ditzaten.

Kultur Etxeko gelen erabilpenari buruzko datuek agerian uzten dute gure herrian gizarte sare zabala eta bizi-bizia dagoela.

Jarraian Kultur Etxeko gelak, 2003. urtean zehar, herriko erakunde eta taldeek zein Udaleko gainontzeko zerbitzuek zenbatetan erabili dituzten azaltzen dugu, bai modu jarraian zein momentu puntualetan.

### USO DE SALAS PARA ACTIVIDADES PUNTUALES. JARDUERA PUNTUALETARAKO GELEN ERABILPENAAK

| Tipo Entidad /Tipo Actividad<br>Erakunde Mota /Jarduera Mota | Asociaciones/Colectivos<br>Elkarteak/Taldeak | Comunidades vecinos<br>Auzokideen erkidegoak | Servicios Ayuntamiento<br>Udaleko Zerbitzuak | Otras entidades<br>Bestelako erakundeak | TOTAL<br>TOTAL |
|---|---|---|---|---|---|
| Reuniones / Conferencias. Bilerak / Hitzaldiak | 122 | 89 | 28 | 32 | 271 |
| Cursos / Talleres. Ikastaroak / Tailerrak | 8 | | 75 | | 83 |
| TOTALES. OSOTARA | 130 | 89 | 103 | 32 | 354 |

### USO DE SALAS PARA ACTIVIDADES PERMANENTES. JARDUERA IRAUNKORRETARAKO GELEN ERABILERAAK

| Tipo Entidad /Tipo Actividad<br>Erakunde Mota /Jarduera Mota | Asociaciones/Colectivos<br>Elkarteak/Taldeak | Servicio Cultura<br>Kultura Zerbitzua | Servicios Ayuntamiento<br>Udaleko Zerbitzuak | Otras entidades<br>Bestelako erakundeak | TOTAL<br>TOTAL |
|---|---|---|---|---|---|
| Reuniones / Conferencias. Bilerak / Hitzaldiak | 141 | 2 | | 34 | 177 |
| Cursos / Talleres. Ikastaroak / Tailerrak | 612 | 275 | 487 | 36 | 1.410 |
| Exposiciones. Erakusketak | – | 25 | | | 25 |
| TOTALES. OSOTARA | 753 | 302 | 487 | 70 | 1.612 |